BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

# 2022KO BIZKAIKO AURREKONTUAK PREST DAGOZ ABENDUAREN 30EKO OSOKO BATZARREAN ALDAKETA BARIK ONARTZEKO

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur amaitu ditue zuzenketa-eske parzialak eztabaidatzeko batzordeak, Ogasun eta Finantza Sailaren kontuak eta arau-proiektuaren Testu Artikulaua aztertuta**

(Bilbon, 2021eko abenduaren 21ean). Batzar Nagusietako taldeek datorren urterako Lurraldeko kontuen azken zuzenketa-eske parzialak, Ogasun eta Finantza Sailari jagokozanak eta arau-proiektuaren Testu Artikulauari egindako zuzenketa-eskeak aztertu eta bozkatu ditue gaur batzordean. Eztabaidak iraun dauen lau jardunaldietan errepikau egin dan gidoiari jarraituta, Aldundia eusten daben taldeek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, ez ditue onartu oposizinoko taldeek (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia-PP Bizkaia) Aldundiko sail horri aurkeztutako 27 zuzenketa-eske parzialak, ezta Testu Artikulauaren aurrean aurkeztutako beste hogeta hamar zuzenketa-eske inguru be.

Bizkaiko 2022ko aurrekontu-proiektua urriaren 29an erregistrau eban Bizkaiko Parlamentuan Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantza diputatuak, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariaren aurrean, eta, holan, hilebete bi iraun dauen Parlamentuko izapidetzeari ekin jakon. Diputatuen azalpenak entzun eta dokumentua herritarren alegazinoei zabaldu ostean, Batzar Nagusietako taldeek osoko zuzenketa-eske bi (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) eta 475 zuzenketa-eske parzial erregistrau ebezan. Foru Aldundia babesten daben talde biek guztiak baztertu ditue.

Aurrekontuen erespena, beraz, aldaketa barik helduko da Gernikako Batzar Etxean abenduaren 30ean egingo dan urteko azken osoko batzarrera, hau da, 8.886,1 milioi euroko kontuak izango ditu, eta horreetatik 1.459,8 milioi Foru Aldundiaren gastu erabilgarriari jagokoz. Aldundiko bederatzi departamentuek 2021ean baino 101 milioi gehiago izango ditue, hau da, arlo guztietako partiden igoeretan islatzen dan % 7,4ko igoerea. Ogasun eta Finantza Sailaren erespenak Bizkaiko Batzar Nagusietarako 9,4 milioi euroko aurrekontua bideratzea ekarriko dau osoko batzarrera, aurtengo zenbateko bera.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# LOS PRESUPUESTOS DE BIZKAIA DE 2022, LISTOS PARA APROBARSE SIN CAMBIOS EN EL PLENO DEL 30 DE DICIEMBRE

- **Las Juntas Generales de Bizkaia han finalizado hoy las comisiones de debate de las enmiendas parciales con el análisis de las Cuentas del departamento de Hacienda y Finanzas y del Texto Articulado del proyecto de norma.**

(Bilbao, a 21 de diciembre de 2021). Los grupos junteros han concluido hoy en comisión el análisis y votación de las últimas enmiendas parciales de las cuentas del Territorio para el año próximo, las correspondientes al departamento de Hacienda y Finanzas y al Texto Articulado del proyecto normativo. En un guión que se ha repetido durante las cuatro jornadas que ha durado el debate, los grupos que sustentan al Gobierno foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, han rechazado las 27 enmiendas parciales que los grupos de la oposición (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y grupo Mixto-PP Bizkaia) habían presentado a este área foral, así como otra treintena referentes al Texto Articulado.

El proyecto de presupuestos de Bizkaia de 2022 fue registrado el 29 de octubre en la Cámara vizcaína por el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, en presencia de la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, iniciando así la tramitación parlamentaria que va a durar dos meses. Tras oir la explicación de la cuentas por parte de diputados y diputadas y abrir el documento a las alegaciones de la ciudadanía, los grupos junteros registraron posteriormente dos enmiendas a la totalidad (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia) y 475 enmiendas parciales. Todas han sido rechazadas por los dos grupos que apoyan a la Diputación.

El dictamen presupuestario llegará por tanto sin cambios al último pleno del año que se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika el jueves, 30 de diciembre, es decir, unas cuentas de 8.886,1 millones de euros, de los que 1.459,8 millones corresponden al disponible de gasto de la Diputación Foral. Sus nueve departamentos dispondrán de 101 millones más que en 2021, lo que supone un incremento del 7,4%, que se ve reflejado en subidas de las partidas de todas las áreas. El dictamen de Hacienda y Finanzas elevará al pleno la inclusión de un presupuesto de 9,4 millones de euros para las Juntas Generales de Bizkaia, el mismo importe que este año.

Hurtado de Amézaga, 6. 48008 Bilbao
T. 94 406 67 00 • www.jjggbizkaia.eus